Ordiziako Udala

2024IOSB0013

Ordiziako Udaletxeko bilkura-aretoan, 2024ko azaroak 28an, Udalbatza Bildu da, egun eta ordu horretarako aldez aurretik deitutako **Ohiko bilkura** bilkura egiteko

*En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de la Villa de Ordizia, siendo el día 28 de noviembre de 2024, se reúne Pleno de la Corporación, al objeto de celebrar la **Sesión ordinaria** previamente convocada para este día y hora.*

Jarraian adierazten diren korporazioko kideak bertaratu dira:

Asisten los miembros de la Corporación que a continuación se indican:

LEHENDAKARIA:

Adur Ezenarro Agirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Maitane Alvarez Garciandia	EH BILDU ORDIZIA
Jon Ander Caballero Zubelzu	EH BILDU ORDIZIA
Ainhoa Jimenez Goñi	EH BILDU ORDIZIA
Itsaso Muñoz Rodriguez	EH BILDU ORDIZIA
Manex Berzosa Irastorza	EH BILDU ORDIZIA
Marta Ortega Echeverria	EH BILDU ORDIZIA
Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ-PNV
Gregorio Iruretagoyena Echaniz	EAJ-PNV
Arantxa Arocena Gomez	EAJ-PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ-PNV
Agurtzane Antoñana Arizmendi	EAJ-PNV
Leire Bidaguren Pujana	EAJ-PNV
Viviana Angélica Murillo Cazar	ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS
Julen Iraola Matxain	ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS
Ana M. Sanchez Herraez	GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Carlos Castaño Arias	EAJ-PNV

IDAZKARIA:

Naia Ruiz de Eguino García-Echave

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1.- 2024ko urriak 30ean udalbatzarrak egindako batzarraren akta zirriborroa onartzea.	*1.- Aprobación del borrador del Acta de la sesión de Pleno celebrada el 30 de octubre de 2024.*
1.1.- BIZITZA elkarteak sinatutako mozioa, ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS aurkeztutakoa, “Gerrateen Inguruan Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldekoa”. Bozketa errepikapena.	*1.1.- Moción suscrita por la asociación BIZITZA y presentada por ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS en relación con las guerras “a favor de la Ciudadanía y de la Cultura de la Vida”. Repetición de la votación.*
2.- 2023 ekitaldiko Ordiziako Udaleko Kontu Orokorra onartzea	*2.- Aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2023*
3.- Arduraldi esklusiboko kargua beteko duen zinegotzia berrestea.	*3.- Ratificar la determinación de concejal que ejercerá su cargo con dedicación exclusiva.*
4.- Arduraldi esklusibo edota partzialik ez duten zinegotziek bertaratzeak kobratzen dituzten kontzeptuengatik ezarritako diru-mugen aldaketa.	*4.- Modificación de los límites de las asistencias que perciben las y los concejales que no tengan dedicación exclusiva o parcial percibirán.*
5.- Ordiziako Adikzioen III. Planaren onarpena.	*5.- Aprobación del III Plan de Adicciones de Ordizia.*
6.- Urriko Alkatetzako dekretuen berri ematea. (4/1180-B24/1647).	*6.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía correspondientes al mes de (B24/1180-B24/1647).*
7.-ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOSek aurkeztutako mozioa, gertakari arrazistak eta xenofoboak prebenitzeko eta horiei behar bezala erantzuteko jarduera-protokolo bat sortzeko eskatuz.	*7.- Moción presentada por ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS solicitando la creación de un Protocolo de Actuación, que permita prevenir y responder de forma adecuada a incidentes racistas y xenófobos.*
8.- Galde-erreguak.	*8.- Ruegos y preguntas.*

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK:

ORDUTEGIA:

HASIERA: 18:11etan. **AMAIERA: 19:05etan.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

Abierta la sesión por parte del presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

1.- 2024ko urriaren 30ean udalbatzarrak egindako batzarraren akta zirriborroa onartzea.

1.- Aprobación del borrador del Acta de la sesión de Pleno celebrada el 30 de octubre de 2024.

Proposamena

2024ko urriaren 30ean ospatutako ohiko Osoko Batzarrako akta zirriborroa onartzea.

Propuesta

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 30 de octubre de 2024.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Ana Sanchez Udal Talde Sozialistako zinegotziak eskatu du akta, 55. orrialdean, non bere adierazpena jasotzen den, honakoa barneratzea: aktan jasota geratzen da aurkako botoa ematen duela, baina benetan esan nuen gertatzen ari ziren giza eskubideen urraketak eta edozein indarkeria mota gaitzesten nituela, eta presioa eragin dezaketen neurriak hartzen jarraitu behar dela, abusu horiei amaiera emateko, bereziki, emakumeen eta neskatoen aurka egiten direnak, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna aprobetxatuz. Su-eten osoa eta mugagabea eskatzea, nazioarteko legedia bete dadila eskatzea, genozidioa eta edozein gerra mota gaitzetsiz beste mozio batzuetan beti defendatu izan dugun bezala, mundu honetan, nahi edo ez, ditugun gatazka armatu horietan estatuko gobernuaren ekintza babestuz, eta arma-gastu eta -ariketarik ez egotea gauza utopikoa dela aintzat izanda zeren defentsa gabeko estaturik izatea ezinezkoa baita

Ana Sánchez, concejala del Grupo Municipal Socialista, solicita que en el acta, en la página 55 donde se incorpora su intervención conste lo siguiente: "en el acta queda constancia de que votó en contra pero realmente dije que condenaba las violaciones a los derechos humanos que se estaban produciendo y cualquier tipo de violencia, y que se sigan adoptando medidas que puedan ejercer presión para poner fin a estos abusos, en especial, los que se cometen contra las mujeres y niñas aprovechando además el día internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres. Pedir el alto al fuego total e indefinido, exigir el cumplimento de la legalidad internacional, como hemos defendido siempre en otras mociones condenando el genocidio y cualquier tipo de guerra, apoyando la acción del gobierno del estado en este asunto en un mundo en el que queramos o no se dan conflictos armados, la inexistencia de ejércitos y de gasto armamentístico es algo utópico puesto que es inviable tener un estado sin defensa.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 16 (EH BILDU ORDIZIA) 7, EAJ/PNV 6, ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS) 2, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.

1.1.- BIZITZA elkarteak sinatutako mozioa, ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS aurkeztutakoa, "Gerrateen Inguruan Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldekoa". Bozketa errepikapena.

Idazkariak adierazten du gaur bozketa errepikatzea, bere errua izan dela. Bozketa izan zen egunean ez ziren zinegotzi denak izan, eta ondorioz abstentzioak izan zen gehiengoa. Gauza da, absentzioen bozkak batzen direla gehiengora eta, puntu honetan aldeko eta aurkako bozkak berdin zeuden. Ondorioz ezin da abstentzioaren botua alde edo kontrakora batu. Hori dela eta, Alkateak du kalitatezko bozka, eta bere bozkarekin jakingo genuke mozioa onartzen zen edo ez. Beraz, ia denok izanik, bozka berriz errepikatzea eskatzen dut.

Ana Sanchezek, Udal Talde Sozialistako zinegotziak, honako hau esan du: beste egoera batean azkenekoz esan zenuen ezin zela bozketa errepikatu, nahiz eta ez zuen aldatzen emaitzik berriro bozkatzea egokia ez zela adierazi zenuen. Orduan kasu horretan ez zen egokia eta orain bai...

Idazkariak esan du kalitatezko botoa eman behar zela eta ez zela egin aldeko botoetan edo kontrako botoetan

1.1.- Moción suscrita por la asociación BIZITZA y presentada por ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS en relación con las guerras "a favor de la Ciudadanía y de la Cultura de la Vida". Repetición de la votación.

La secretaria indica que el repetir hoy la votación ha sido por error suyo. El día de la votación no se personaron todos los concejales, por lo que las abstenciones fueron mayoría. La cuestión es que se suman los votos de abstención a la mayoría de los votos obtenida y, en este punto, los votos a favor y en contra estaban igualados. En consecuencia, no cabe sumar el voto de abstención a favor o en contra. Por ello, el voto de calidad lo tiene el alcalde, y con su voto sabríamos si se aprobaba o no la moción. Así que, atendiendo a que están casi todos, pido que se repita el voto.

Ana Sánchez, concejal de Grupo Municipal Socialista, comenta: que la última vez en otra situación comentaste que no se podía repetir la votación, aunque no modificaba el resultado que no era oportuno votar nuevamente. Entonces si en ese caso no era oportuno y ahora si…

La secretaria indica que se tenía que efectuar el voto de calidad y que no se llevó a cabo por no percatarse de que no existía

gehiengorik ez zegoela ez ohartzeagatik.

Ana Sanchez Udal Talde Sozialistako zinegotziak esan du: egin behar bazen eta egin ez bazen, orain ez zaio bidezkoa iruditzen berriro bozkatzea, eta are gehiago, emaitza aldatu egingo dela kontuan hartuta. Izan ere, ez zen momentuan onartu, eta Orain bozkatuz gero onartu egingo da. Beraz, ni berriz bozkatzearen aurka nago.

Alkateak adierazten du: Idazkariak komentatu zidan, eta kontutan izanda horrelako enpate kasuan suposatzen da nire bozka izango zela desenpatea egingo zuela, eta aurreko plenoan adierazi genuen gure abstentzioarekin, eta argudiatu ere egin genuen, ez genuela arazorik mozioa ateratzeko, baina adierazi genuen europear zentrismotik egindako mozioa zela, eta holako aipamen txiki batean Palestina agertzen zela, baina guri lotsa eta dena ematen zigula horrelako testu bat termino hauetan ateratzea Palestinan bereziki, eta beste leku batzuetan, pairatzen dauden genoziodio baten aurrean. Esan genuen edukiarekin ez genuela inolako eragozpenik, eta ni izan naiz gai ordena egiterakoan, eta idazkariak aipatu zidanean talka hori zela, nik sartu dut atakatik ateratzeko zeren ez zen alde edo kontra atera bozkak ez dutelako ematen. Horregatik proposatu dut berriz bozkatzea., ez dakit nola egin nahi duzuen, baina uste dut egokiena berriz bozkatzea dela eta atera dadila ateratzen dena. Esan genuen eragozpenik ez genuela jarriko ateratzeko, baina ulertzen dut nik ere kalitatezko botua ematean nire bozka aldatzen dudala, beraz egokiena berriz bozkatzea izango zela uste dut.

Idazkariak galdetzen die alderdi denei ea prest dauden berriz bozkatzeko, eta denak alde agertzen dira Ana Sanchez

mayoría en votos a favor o votos en contra.

Ana Sánchez, concejal de Grupo Municipal Socialista, comenta: que, si se tenía que efectuar y no se hizo, ahora no le parece procedente volver a votar, y más teniendo en cuenta de que el resultado se va a modificar. Puesto que no se aprobó en el momento y ahora si se va a aprobar. Por lo tanto, yo me opongo a volver a votar.

El Sr. Alcalde indica: «la secretaria me lo comentó, y teniendo en cuenta que en este tipo de empates se supone que mi voto sería el que desempata, y en el anterior pleno con nuestra abstención y los argumentamos, que no teníamos ningún problema en sacar la moción, pero dijimos que se trataba de una moción desde el centrismo europeo, y que en una pequeña mención así aparecía Palestina, pero que a nosotros nos daba vergüenza y todo sacar un texto así en estos términos especialmente cuando en Palestina, y en otros lugares, padecen el genocidio que padecen. Dijimos que con el contenido no teníamos ningún inconveniente, y he sido yo quien, al elaborar el orden del día, y cuando la secretaria me comentó la controversia, lo ha incorporado para salir del atolladero. Insisto no salió a favor ni en contra porque las votaciones no dan. Por eso he propuesto volver a votar., no sé cómo queréis hacerlo, pero creo que lo ideal es volver a votar y que salga lo que salga. Dijimos que no pondríamos objeciones para que saliera adelante la moción, pero entiendo que al emitir mi voto de calidad también cambio mi voto, así que creo que lo ideal sería volver a votar.

La secretaria pregunta a todos los partidos si están dispuestos a volver a votar y todos se muestran a favor excepto Ana Sánchez, que considera que no se debería votar.

ezik, bere ustez ez litzateke bozkatu behar. Bere ustez kalitatezko bozka une hartan erabili beharko litzateke. Baina gehiengoz berriz bozkatzea erabakitzen bada, berak ez duela bozkatu nahi agertzea nahi du.

Alkateak adierazten du kalitatezko botua erabili behar bada, baiezkoa izango dela, eta horrela jasotzea eskatzen dio idazkariari. Baina, berresten da: kalitatezko botu bat erabili aurretik, eta berak alkate bezala erabaki, egokiena berriz denon artean bozkatzea zela egokiena.

Considera que el voto de calidad debió de utilizarse en aquel momento. Pero si se decide volver a votar por mayoría, quiere que conste que ella estima que no se debe de votar.

El. Alcalde manifiesta que, si hay que hacer uso del voto de calidad, será afirmativo, y pide que así lo recoja la secretaria. Pero, se ratifica: antes de utilizar un voto de calidad y decidir él mismo como alcalde, lo ideal era volver a votar entre todos.

BIZITZA elkarteak sinatutako mozioa, ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS aurkeztutakoa, "Gerrateen Inguruan Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldekoa"

Moción suscrita por la asociación BIZITZA y presentada por ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS en relación a las guerras "a favor de la Ciudadanía y de la Cultura de la Vida".

Bizitza
osasunaren eta askatasunaren alde

Udalbatzarako mozioa gerrateen inguruan Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldeko mozioa

Moción al Pleno del Ayuntamiento en relación a las guerras Moción a favor de la Ciudadanía y de la Cultura de la Vida

1.-Sarrera

Gerrak Europaren bihotzean izan duen gorakada larriari dagokionez, eta Europa eta gizateria osoa mapatik ekortzeko mehatxu larriaren aurrean, egoeraren larritasun gorena ekarri nahi dizuegu gogora, euskal eta nafar ordezkari publiko guztioi. Izan ere, gure seme-alabak, esate baterako, berehala gerrara deituak izateko arriskuan daude, dagoeneko hiru ukrainar belaunaldi akabatu dituen hiltegi batera bidal ditzaten.

1.- Introducción

En relación a la gravísima escalada de la guerra en el corazón de Europa y a su previsible e interesadamente forzada deriva hacia una guerra nuclear que amenaza con barrer a Europa y a la humanidad entera del mapa, queremos recordar a todos los representantes públicos vascos y navarros, la extrema gravedad de la situación, estando por ejemplo nuestros hijos/hijas en riesgo inminente de ser llamados a filas para ser enviados al frente, a una carnicería

Horrek argi erakusten digu zer nolako arrisku larrian gauden eta are gehiago erraz piztu daitekeen gerra nuklear baten gertakizunaren aurrean.

que ya ha acabado con tres generaciones de ucranianos.

Sirva esto como ejemplo ilustrativo del gravísimo riesgo inminente e inmediato (que ni siquiera es el mayor, ante la mencionada eventualidad de una guerra nuclear.)

2.-Udalbatzari eskaera

2.- Solicitud al Pleno del Ayuntamiento

Horren guztiaren aurrean, Udalbatza honek, Adierazpen Instituzional hau onar dezala eskatzen dugu:

Ante todo ello, solicitamos que el Pleno del Ayuntamiento apruebe la siguiente Declaración Institucional:

“Udalbatza honek, herriaren eta, oro har, gizateriaren interesen ordezkari gisa:

“Este Ayuntamiento, como representante de los intereses del pueblo y de la humanidad en su conjunto:

1.Gatazkan dauden alderdiei eta gatazkan parte hartzen duten erakunde guztiei eskatzen die Ukrainako gerran berehala su- etena aldarrikatzeko eta dagokion negoziazio-prozesua hasteko, prozesu hori, nolanahi ere, oso berandu iritsiko den arren.

1. Exige a las partes en conflicto y a todas las instituciones involucradas en ella, la declaración de un inmediato alto al fuego en la guerra de Ucrania y el inicio del proceso negociador correspondiente, que en todo caso llegaría extremadamente tarde ya.

2.NATO desegitea eskatzen du. Euskadik eta Nafarroak aliantza militar horretan sartzearen aurka bozkatu zutela gogoratu beharra dago.

2.Exige la disolución de la OTAN. Recordemos que Euskadi y Navarra votaron en contra de la incorporación a esa alianza militar.

3. Derrigorrezko soldadutzaren aurka dago aurrez aurre, bai gizonentzat, bai emakumeentzat, gure gazteriari mehatxu egiten baitio.

3.Se opone frontalmente al servicio militar obligatorio, tanto para hombres como para mujeres, con el que se amenaza a nuestra juventud.

4.Espainiako Erresumako Gobernuak onartzen dituen eta Ukrainako gerrara bideratzen diren aurrekontu ekonomikoak handitzearen aurka dago aurrez aurre.

4.Se opone frontalmente al incremento de los presupuestos económicos que aprueba el Gobierno del Reino de España y que se destinan a la guerra en Ucrania.

5.Berariaz gaitzesten ditu Gazako GENOZIDIOA eta mundu osoan zehar HERIOTZAREN KULTURA

5.Condena expresamente el genocidio en Gaza y cuantas guerras dan forma a una premeditada y sistemática CULTURA DE

gauzatzen duten gerrak. Herrialdeak eta kulturak suntsitzen ditu, babestutu eta zaindu nahi omen duten planeta hau, guztiz triskatzeko bidean jarriz.

LA MUERTE que asola países y culturas, que amenaza con destruir un planeta que, paradójicamente, dicen querer defender y cuidar, pidiendo expresamente el cese de los ataques contra el pueblo palestino y un proceso que le restituya sus derechos.

Udalbatza honek, Palestinako herriaren aurkako erasoak bertan behera uzteko eta bere eskubideak itzuliko dizkion prozesu bateri ekitea eskatzen du.

Esta Corporación exige que cesen los ataques contra el pueblo palestino y que se aborde un proceso que le devuelva sus derechos.

6.Guzti horren alternatiba gisa, BIZITZAREN KULTURA baten aldeko apustua egiten du baita udalbatza honek, munduan heriotza, izugarrikeria, esklabotza eta miseria ereitera bideratutako baliabide eskergak, bere zaintzara zuzenduz.

6.Apuesta como alternativa, por una CULTURA DE LA VIDA, redirigiendo hacia su cuidado los ingentes recursos ahora destinados a sembrar la muerte, el horror, la esclavitud y la miseria en el mundo.

Adierazpen instituzional hau Madrilgo Diputatuen Kongresuko euskal eta nafar ordezkariei bidaltzeko eskatzen dugu, Adierazpen Instituzional horrekin batera proposamen bat aurkez dezaten, Diputatuen Kongresuko ganberan guzti honen inguruko eztabaida ireki dadin.”

Solicitamos que esta Declaración Institucional, se envíe a los representantes vascos y navarros en el Congreso de los Diputados en Madrid para que presenten una propuesta con la citada Declaración Institucional para que sea debatida en la cámara del Congreso de los Diputados.”

Aurreko udalbatzerrean egindako bozketaren emaitza

Aldekoak: 1 (ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS)
Aurkakoak: 1 (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA)
Abstentzioak: 13 (EH BILDU ORDIZIA 7, EAJ/PNV 6)

→ **Alkatek kalitatezko aldeko bozka eman du.**

Beraz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat jo du.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- 2023 ekitaldiko Ordiziako Udaleko Kontu Orokorra onartzea (2024KKON0001).

Proposamena

2024ko urriaren 3an egindako bileran Kontuen Batzorde Bereziak 2023 ekitaldiko Kontu Orokorraren aldeko txostena egin zuen.

Aldeko txostena jendaurreko erakusketan egon da 2024ko urriaren 9an 195 zenbakidun GAOko iragarkian, eta ez da erreklamaziorik, erreparorik edo oharrik aurkeztu.

Kontuen Batzorde Berezien txostenak zioenaren arabera, behin azalpen-epe hori erreklamaziorik, erreparorik edo oharrik aurkeztu gabe amaituta Udalbatzaren osoko bilkuraren esku jartzen da Kontu Orokorraren onarpena.

Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikuluan ezarritakoaren arabera

PROPOSATZEN dut:

2023 ekitaldiko Aurrekontuen Kontu orokorra onartzea.

Erantsitako dokumentazioa:

1. Balantzea
2. Ondare emaitza ekonomikoa
3. Ondare Garbia
4. Diru fluxuen egoera orria
5. Likidazioaren egoera
6. Memoria
7. Berdintasun egoera

2.- Aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2023 (2024KKON0001).

Propuesta

La Comisión Especial de Cuentas, en sesión celebrada el día 3 de octubre de 2024, informó favorablemente la Cuenta General del Presupuesto 2023.

El citado informe ha estado expuesto al público mediante anuncio en el B.O.G. nº195, de fecha 9 de octubre de 2023, sin que en el plazo establecido se haya presentado reclamación, reparo u observación alguna.

Finalizado dicho plazo de exposición sin reclamaciones, reparos u observaciones al informe favorable inicial adquiere la consideración de definitivo, por lo que se eleva al Pleno para su aprobación.

A la vista de ello, de conformidad con el artículo 63.4 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa

PROPONGO:

Aprobar la Cuenta General del Presupuesto 2023.

Documentación adjunta:

1. Balance de situación
2. Resultado económico patrimonial
3. Patrimonio neto
4. Estado de flujos efectivo
5. Estado líquido
6. Memoria
7. Estado de conciliación

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkateak adierazten du prozeduran hainbat aldiz adierazi dira argudioak alde batera eta bestera, finantza batzordetik pasa zenean ere izan genuen eztabaida, eta prozedura amaituta eta erakustaldi publikoan izan ondoren ez da alegaziorik jaso eta ez da inolako errekurtsorik ezarri. Beraz udalbatzari dagokio onarpena ondoren kontu epaitegira igorri ahal izateko.

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak honakoa dio: gure aldetik esan, erabaki degu aurka bozkatzea baina azalpen logikoarekin. Auditoritza bat egin bitartean aurka bozkatuko dugu. Denbora daramakigu ikusten kreditu transferentziak egiten direla eta onargarriak ez direla esan dugu, are gehiago alkate dekretu bidez onartzeak, eta hori aurreko udalbatzan ere adierazi dugu. Uste dugu ez direla denen artean adostutako aurrekontuak, zuek detailea izan duzue proposamenak hartzekoa, baina exekutatu diren aurrekontuak ez dira denon artean adostuak soilik EH Bildurenak dira. Eta kudeaketa hori zuek egin duzue denon artean zabaldu gabe. Gertatzen dena da ulertzen dugula Gobernuak arazoak izango dituela 2023 kontu hauek onartzen ez baditu, Diputazioa etor daitekelako kartila irakurtzera.

Alkateak adierazten du: betikotan gaude, eta ez dira gure kontuak, kontuhartzaileak abenduak 31an argazkia ateratzen du, eta agian Aldundia etor daiteke, baina ez gure bila zuen bila baizik, zuek esaten baduzue kontuak ez direla horiek. Eta hori esanda plazatu beharko zenukete zeintzuk diren

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

El alcalde señala que en el procedimiento se han manifestado argumentos en varias ocasiones, ya cuando se realizó la Comisión de Finanzas tuvimos un debate, y finalizado el procedimiento y tras la debida exposición pública no se han recibido alegaciones ni se ha interpuesto recurso alguno. Por tanto, corresponde al Pleno la aprobación para su posterior remisión al Tribunal de Cuentas.

Julen Iraola, concejal de Ordizia Orain Elkarrekin Podemos dice: «Por nuestra parte, decidimos votar en contra, pero con una explicación lógica. Mientras no se realice una auditoría votaremos en contra. Llevamos tiempo viendo que se hacen transferencias de crédito y hemos dicho que no son aceptables, más aún que se aprueben por decreto de alcaldía, algo que ya hemos manifestado en el anterior pleno municipal. Creemos que no son presupuestos consensuados entre todos, habéis tenido el detalle de darnos opción de emitir propuestas, pero los presupuestos que se han ejecutado no son consensuados entre todos son sólo de EH Bildu. Y esa gestión la habéis hecho vosotros sin difundirla entre todos. Lo que pasa es que entendemos que el Gobierno tendrá problemas si no aprueba estas cuentas 2023, porque la Diputación puede venir a leer la cartilla".

El alcalde señala: Estamos en lo de siempre, y no son nuestras cuentas, la interventora hace el croquis al 31 de diciembre y puede que venga la Diputación, pero no a por nosotros sino a por vosotros, si vosotros indicáis que las cuentas no son esas. Y dicho esto deberíais de hacer público cuáles son las cuentas reales Ya lo

kontu errealak. Aipatu dugu, eta ez dakit didaktikoak eta pedagogikoak izaten jarraitu behar dugun, baina kontzeptuz eta terminoz nahasten zaudetela. Kontu orokorrak jasotzen du abenduak 31an udalaren eta organismoen kontuen argazkia zein den, eta horren lanketa kontuhartzailetzan dagokio, eta bereziki kontuhartzaileari berak sinatzen baititu. Azkenean jasotzen du udalaren egoera zein den. Aurrekontuetan bai zabaltzen da eztabaida politikoa, baina kontuetan guk ez dugu parte hartzen. Baina ondo dago aurkako jarrerak agertu eta argudiatzea, baina une honetan kontu horiek ez onartzeak esan nahi du adierazten ari zaretela kontuak horiek ez direla, eta ez kontu horien atzean zein trasfondo dagoen. Eta aurrekontuaren garapenaren inguruan, bere garaian esan nizuen kreditu transferentziak alkate bidez onartuak, berriz errepikatzen dizuet Madrilen zaudete, gobernuan zaudete, aldatu legedia zeren beste guztia jendea nahastea da. Aurrekontuen garapenerako eskuduntza eta konpententziak dauden bezala daude, ez ditugu guk ezarri, ez daukagu guk aukera aldatzeko, baina zuen alderdiak bai beraz tramitatu ezazue Madrilen lege aldaketa bat, eta aurrekontuaren garapena beste modu batera egingo dugu.

hemos comentado y no sé si debemos seguir siendo didácticos y pedagógicos, pero estáis confundiendo conceptos y términos. La Cuenta General recoge al 31 de diciembre la fotografía de las cuentas del Ayuntamiento y de los organismos, cuya elaboración corresponde a Intervención y en especial a la propia Interventora puesto que la firma ella misma. Al final recoge cuál es la situación del Ayuntamiento. En los presupuestos sí se abre el debate político, pero en las cuentas nosotros no participamos. Pero está bien que aparezcan y argumenten posiciones en contra, pero en este momento la no aprobación de estas cuentas significa que estáis indicando que las cuentas no son esas y no qué trasfondo hay detrás de ellas. Y en cuanto al desarrollo del presupuesto y a las transferencias de crédito aprobadas por alcaldía, os repito que vosotros estáis en Madrid, estáis en el gobierno, cambiad la legislación porque todo lo demás es confundir a la gente. Las competencias para el desarrollo de los presupuestos están como están, no las hemos establecido nosotros, no tenemos nosotros la posibilidad de cambiarlas, pero vuestro partido sí, por lo tanto, tramitad una modificación legal en Madrid y entonces haremos de otra manera el desarrollo del presupuesto.

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak honakoa dio:aklarazio modura nik uste dut gaizki ulertu garela, esan dudana da presupuestatu ziren aurrekontuak eta urte bukaeran agertzen diren zifrak argitara ematen dutela hasiera pentsatu zen aurrekontua ez dela eman. Eta gure kritika da: gurekin eta oposizioarekin hitz egindako partida horiek gehienbat ez dira exekutatu, eta honek, demostratu du ez direla exekutatu zifrak begiratzean. Hori da gure kritika, eta ez beste inongo kritikarik. Eta, matizatze aldera gobernuan SUMAR

Julen Iraola, concejal de Ordizia Orain Elkarrekin Podemos, dice: A modo de aclaración yo creo que nos hemos malinterpretado, lo que he dicho es que los presupuestos que se presupuestaron y las cifras que aparecen a final de año dejan claro que el presupuesto que se pensó inicialmente no se ha dado. Y nuestra crítica es que estas partidas consensuadas con nosotros y con la oposición no se han ejecutado en su mayoría, y esto se percibe y se demuestra mirando las cifras Esa es nuestra crítica y no ninguna otra. Y, para matizar, en el gobierno está SUMAR, pero

dago, baina tira.

Ana Sanchez Grupo Municipal Socialistako zinegotziak adierazi du: abstenitu egingo da. Kontu-hartzaileak aurkeztutakoa dauden zenbakien argazkia da. Zalantzak ditugu, gauza batzuek ez ditugu garbi ikusten; horregatik eskatu dugu auditoria. Eta, beraz, ez dugunez auditoria, ez dugu aldeko bozka emango, ezta kontrakoa ere. Ez dugu zalantzan jarriko kontu-hartzailearen lana, eta hala jakinarazi diogu, eta aurrekontuei dagokienez, aurrekontuak gauzatuta dauden ala ez, aurrekontuez hitz egiten dugunean hitz egingo dugu. Hemen kontuez hitz egiteko gaude, baina Julenek esan duena puntu gehigarri bat da, zenbateko batzuk garatu edo landu behar zirelako, baina beste une batean hitz egingo dugu. Beraz, ezin dut kontu horien alde bozkatu, baina ez ditut oztopatuko; izan ere, hala egingo banu, Next laguntzen garapena eta exekuzioa arriskuan jarriko genituzke. Uste dut herritarrentzat oso garrantzitsua dela Nextak aurrera egitea, oso diru-injekzio garrantzitsua da, udaletik ahalegin bat egiten ari gara Next delakoak osatzeko herriarentzat jarduera jakin batzuk garatzeko, eta, beraz, ez dut kontrako botorik emango eta abstenitu egingo naiz.

Joseba Aranburuk, EAJko Zinegotziak adierazten du: alde bozkatuko dugu nahiz eta auditoria eskatzen dizuegun. Eta hurrengo urtean onartzeko auditoria egotea eskatzen dizuegu. Beraz, onartzen dugu, uste dugulako kontuhartzailearen txostena dagoelako, eta ulertzen dugu hori dela kontu hauen fiskalizazioa, baina kanpo enpresa batek egitea eskatzen da.

Alkateak adierazten du: inoiz ez dugu ukatu auditoria egitea, azken urteetan ez da inoiz egin, eta auditoria eskatzea

bueno.

Ana Sánchez, concejala del Grupo Municipal Socialista, indica: se va a abstener. Las cuentas presentadas por la interventora son una fotografía de los números que constan. Realmente tenemos dudas porque hay cosas que no nos cuadran, por eso hemos pedido la auditoria. Y por tanto como no la tenemos no vamos a votar a favor, pero tampoco en contra. No vamos a poner en cuestión el trabajo de la Interventora, y así se lo trasladé a ella, y respecto a los presupuestos de si están ejecutados o no ya hablaremos cuando hablemos de presupuestos, aquí estamos para hablar de cuentas, pero sí que lo que ha comentado Julen es un punto añadido, porque hay cuantías que se deberían haber desarrollado o tratado, pero lo hablaremos en otro momento. Por lo tanto, no puedo votar a favor de estas cuentas, pero tampoco las voy a obstaculizar porque si así lo hiciera, como se nos trasladó desde intervención, pondríamos en riesgo el desarrollo y la ejecución de las ayudas Next. Creo que es muy importante para la ciudadanía que las Next sigan adelante, es una inyección de dinero muy importante, estamos haciendo un esfuerzo desde el ayuntamiento por complementar las Next para desarrollar determinadas actividades para el pueblo, por lo tanto, no voy a votar en contra y me voy a abstener.

Joseba Aranburu, concejal del PNV señala: «Votaremos a favor, aunque os pedimos una auditoría. Y os pedimos que el próximo año haya auditoría para aprobarlo. Por lo tanto, lo aceptamos porque creemos que hay informe de la interventora y entendemos que esa es la fiscalización de estas cuentas, pero se pide que lo haga una empresa externa.

El Sr. alcalde señala: «Nunca hemos denegado la realización de la auditoría, nunca se ha realizado en los últimos años, y

kontuhartzailearen eskumena da plangintza batean barneraturik izaten delarik. Badakizue kontuhartzailetzaren egoera zein den, baina errepikatzen dut bozkatzen duguna da kontuak hauek diren edo ez. Zilegi da kritikak egitea kudeaketari, baina errepikatzen dut kasu honetan ardura gehiago dauka esateak kontuak hauek ez direla, zeren orduan erantzukizuna hartuko zenukete kontuak zeintzuk diren plazaratzeko obligazioa izango baitzenute. Beste gauza bat da kontu horietara nola iritsi garen. Errepikatzen dut: kontu hauek ez ditugu guk egin, kontuhartzaileak egin ditu. Eta auditoriari dagokionez ez dugu eragozpenik, auditoria eskatu dena Majorikoa izan da, eta informazioa zuekin partekatu dugu. Bestalde azkenik adierazi, Majoriko estatutuetan kontuak onartu behar direla apaitzen da, baina ez da adierazten kontu horiek auditoriarik pasa behar dutenik. Hala eta guztiz, ez dugu inolako eragozpenik ez Majorin ez eta Udalean ere dagozkion auditoria horiek egiteko.

solicitar la auditoría es competencia de la Interventora y se debe incluir en una planificación. Ya saben cuál es la situación de intervención, pero reitero que lo que votamos es si las cuentas son estas o no. Es lícito hacer críticas a la gestión, pero reitero que en este caso conlleva más responsabilidad decir que estas cuentas no son estas, porque entonces tendríais la obligación de hacer públicas cuáles son las cuentas reales. Otra cosa es cómo hemos llegado a esas cuentas. Reitero: estas cuentas no las hemos hecho nosotros, las ha hecho la interventora. Y en cuanto a la auditoría no tenemos inconveniente, la que se ha solicitado ha sido la de Majori, y hemos compartido la información con vosotros/as. Por último, he de señalar que en los estatutos de Majori se estipula la necesidad de aprobar las cuentas, pero no se indica que éstas deban pasar auditorías. A pesar de todo, no tenemos ningún inconveniente en realizar ni en Majori ni en el Ayuntamiento las auditorías que correspondan.

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak honakoa dio: aipatu duzu auditoria hori egiteko arazorik ez dela, baina zenbat urte gabiltza esaten auditoria hori egin behar dela? Horregatik gure bozka kontrakoa da, zeren zein auditoriak azaltzen digu kontu hauek errealak direla, inoiz ez da exejutatu auditoriarik. Baina ez da inoiz egin, eta lana egin duenak ondo egingo zuen lana, baina auditoriarik ez da inoiz egin behin eta berriz eskatu den arren.

Julen Iraola, concejal de Ordizia Orain Elkarrekin Podemos dice: «Has mencionado que no hay ningún problema para realizar esa auditoría, pero ¿cuántos años llevamos diciendo que hay que hacerla? Por eso nuestro voto es contrario, porque qué auditoría nos explica que estas cuentas son reales, nunca se ha ejecutado una auditoría. No se ha hecho nunca y aunque el que ha hecho el trabajo lo habrá hecho bien, nunca se ha realizado una auditoría a pesar de haberla pedido insistentemente.

Alkateak adierazten du: hemen dago pertsona bat bere sinadura eta ondasunekin aurre egiten diola hemen aukezten dituen datuei. Beraz, arinkeria gutxiago. Bere ondasun propioekin erantzun eta aurre egiten dio aurkezten diren kontu hauei, eta kontuhartzaileak

El alcalde manifiesta: Aquí existe una persona que con su firma y sus bienes hace frente a los datos que aquí presenta. Así que menos ligereza. Responde y afronta con sus propios bienes a la veracidad de estas cuentas que se presentan y es la Interventora En consecuencia, votar lo que

berak erantzuten du kontu hauekiko. Ondorioz, bozkatu nahi duzuena, argi azaldu da. Zu Julen ez zara hemen izan, eta eskatu dena zuen alderdi politikotik izan da 2017-2018 ekitaldietako auditoria eta ez aldiz urtez urteko auditoria. Beraz, bozkatuko dugu zeren kontu epaitegian ere berandu gabiltza, eta kontuaren onarpena izapide administratibo bat izaten da, eta ez gaude betetzen luzatzen gabiltzalako beste eztabaida batzuekin. Eta errepikatzen dut zuen kritika, eztabaidak gogoetak kudeaketari buruzkoak zilegi dira, baina ez doa gai honekin.

estiméis, se ha explicado con claridad. Tú Julen no has estado hasta ahora aquí y lo que se ha pedido desde vuestro partido político ha sido la auditoría de los ejercicios 2017-2018 y no la auditoría anual continua. Por lo tanto, vamos a votar porque vamos tarde en fechas en el Tribunal de Cuentas y la aprobación de la cuenta suele ser un mero trámite administrativo que no estamos cumpliendo porque lo estamos dilatando con otras controversias. Y reitero: vuestra crítica, los debates, consideraciones en torno a la gestión son legítimos, pero no va con este tema.

-

Bozketa**:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 13 (EH BILDU ORDIZIA 7, EAJ/PNV 6)
Aurkakoak: 1 (ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS 1)
Abstentzioak: 2 (ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS1, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1).

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Arduraldi esklusiboko kargua beteko duen zinegotzia berrestea. (2024AAAF0002).

Proposamena

2023ko ekainaren 17an korporazio berria eratu zen eta ondorioz, Ordiziako Udaleko Erregelamendu Organikoko 35.4 artikuluari jarraiki, besteak beste, arduraldi esklusiboko eta partzialeko zinegotziak, horien ordainsariak nahiz bertaratzeengatiko diru kopuruak zehaztu ziren 2023ko uztailaren 13an ospatu zen osoko bilkuran.

3.- Ratificar la determinación de concejal que ejercerá su cargo con dedicación exclusiva (2024AAAF0002).

Propuesta

El 17 de junio de 2023 se constituyó la nueva Corporación, por lo que, de conformidad con lo previsto en el artículo 35.4 del Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Ordizia, el Pleno celebrado del 13 de julio resolvió, entre otros aspectos, la determinación de los cargos electos en régimen de dedicación exclusiva y parcial, sus retribuciones, así como en el régimen de pagos en concepto de asistencias.

Zentzu honetan, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituenak, arduraldi esklusiboa, partziala eta soilik bileretara etortzen diren zinegotzien asistentzien kontzeptuak bereizten ditu. Era berean, arduraldi partzialari dagokionean, araudiari jarraiki, bi bide ezberdin ezartzen ditu korporazioko kideek sektore publikoan edo pribatuan lan egiten duten kontuan hartuta.

En este sentido, la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, distingue tres tipos de dedicación: exclusiva, parcial y mero asistente a los órganos colegiados, con dos variantes en la dedicación parcial según los miembros electos de la Corporación pertenezcan al sector público o al privado.

Bestalde, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak 32.2 artikuluan xedatzen du, Alkateek, beren-beregi uko egin ezean, arduraldi esklusiborako eskubidea daukatela eta 33. artikuluak berriz, hamar mila biztanletik gorako udalerrietan oposizioko zinegotzi batek arduraldi esklusiboa izango duela bermatu behar dela ezartzen du.

Por otro lado, la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, establece en su artículo 32.3 que el alcalde tiene derecho a la dedicación exclusiva, salvo renuncia expresa, y, por otro lado, el artículo 33 también indica que, en los municipios de una población superior a 10.000 habitantes se garantizará que exista un concejal o concejala de la oposición con dedicación exclusiva.

Gainerako arduraldiak proposatzea, ETEL 32.3 artikuluaren arabera, Alkatetzari dagokio.

Las demás dedicaciones, de conformidad con lo previsto en el artículo 32.3 LILE corresponde proponer a la Alcaldía.

Arduraldi esklusibo edo partzialik ez duten zinegotzien kasuan, bertaratzeak kobratuko dituztela xedatzen du ETEL 32.4 artikuluak eta osagai finko bat eta aldakor bat izango dutela aurreikusten da.

En el caso de concejales o concejalas sin dedicación exclusiva o parcial, el artículo 32.4 LILE dispone que cobrarán asistencias y se prevé que tendrán un componente fijo y otra variable.

2024ko ekaineko osoko bilkuran, alkateordearen baja egoeraren aurrean, haren ardurak hartuko zituen beste zinegotzi baten arduraldia erabaki zen.

En el pleno ordinario de junio de 2024, ante la situación de baja de la teniente de alcalde, se decidió la dedicación de un nuevo concejal que asumiese sus responsabilidades.

Behin salbuespenezko egoera hori gainditua, lanen eta arduren berrikuspen orokor bat egin da. Hainbat esparrutan kudeaketa gabeziak antzeman dira, ondorioztatuz behin-behineko ardurak baino, behin-betiko ardurak beharko luketela kudeaketa egoki bat lortu nahi bada.

Una vez finalizada esa situación de excepción, se ha realizado una revisión de trabajos y responsabilidades. Se ha detectado que en varios ámbitos no se llega en la gestión, llegando a la conclusión que las dedicaciones han de ser permanentes, en lugar de provisionales, en aras de conseguir una gestión adecuada.

Hau guztia kontuan hartuta, nahiz Udaleko Erregelamendu Organikoko 14 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrita, Alkatetza honek hurrengo akordio proposamena luzatzen dio Osoko Bilkurari

Por todo ello, y de conformidad con lo dispuesto en los artículos 14 y 15 del Reglamento Orgánico del Ayuntamiento, esta Alcaldía eleva a la Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

AKORDIO PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA. - Jarraian zerrendatuko diren Ordiziako Udaleko zinegotziari arduraldi esklusiboa berrestea, puntu honetan bertan zehaztutako ordainsariak aitortuz:

Izena: JON ANDER CABALLERO ZUBELZU

- Arduraldia: arduraldi esklusiboa eta urteko 51.517,62€-ko soldata gordina (bere egungo laneko soldata berbera eta 2024 igoera barnebilduta)
- Arduraldi hau 2024eko uztailak 1etik aurrera erabakitakoaren jarraipena izango da.
- Eginkizuna/Kargua: Zerbitzu Orokorrak (garbiketak eta muntaiak), Kirola eta Majori, Auzoak, Zahartzaroa eta Zuhaizti, eta Giza Baliabideak.

PRIMERO. - *Reafirmar la dedicación exclusiva a los concejales del Ayuntamiento de Ordizia que se relacionan a continuación, con las retribuciones detalladas en este mismo punto:*

- ***Nombre: JON ANDER CABALLERO ZUBELZU***
  - *Dedicación: dedicación exclusiva y retribución bruta anual de 51.517,62€ (mismo salario que su trabajo actual incluida la subida del 2024).*
  - *Esta dedicación es continuidad de la previa acordada a partir de 1 de julio de 2024.*
  - *Cargo: concejal delegado de los ámbitos de Servicios Generales (limpieza y montajes), Deportes y Majori, Barrios, Tercera Edad y Zuhaizti, y Recursos Humanos.*

BIGARRENA.- Arduraldi esklusiboa daukaten zinegotziek dagozkien ekitaldietako aurrekontu orokorrean xedatutakoaren arabera finkatutako ordainsariak jasoko dituzte, dagokien antzinatasuna eta eskubide pasiboak barne, hala badagokio. Finkatutako ordainsariak Udaleko langileen ordainsariak handitzen diren modu berean igoko dira, baina Udalean oraindik onartzeko dagoen 2024eko igoera ez zaio aplikatuko, dagoeneko barnebilduta daramalako.

SEGUNDO. - *Las y los concejales que tienen reconocido la dedicación exclusiva percibirán las retribuciones fijadas de acuerdo con lo dispuesto en el Presupuesto General de los ejercicios correspondientes, con la antigüedad y derechos pasivos correspondientes, en su caso. Las retribuciones fijadas se incrementarán en los mismos términos que se incrementen las retribuciones del personal municipal, sin embargo, la subida para el 2024 que el Ayuntamiento todavía no ha aprobado no se le aplicará, debido a que ya está incluida en su salario.*

Gizarte Segurantzan altan emango zaie eta Korporazioak bere gain hartuko ditu dagozkion enpresa-kuotak ordaintzea.

Serán dados de alta en la Seguridad Social, asumiendo la Corporación el pago de las cuotas empresariales que correspondan.

Arduraldi osoaren kasuan ordainsari horiek jasotzea bateraezina izango da administrazio publikoen edo horien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuen konturako bestelako ordainsariak jasotzearekin, baita bestelako jarduerak burutzearekin ere, Administrazio Publikoen Zerbitzurako Langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera. Arduraldi partzialak bateragarriak izango dira ordaindutako bestelako jarduera publiko edo pribatuekin, hots TAOL 75. artikuluan aurreikusi bezala.

En el supuesto de tales retribuciones por dedicación exclusiva, su percepción será incompatible con la de otras retribuciones con cargo a los presupuestos de las administraciones públicas y de los entes, organismos o empresas de ellas dependientes, así como para el desarrollo de otras actividades, todo ello en los términos de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas. Respecto de las dedicaciones parciales serán compatibles con el ejercicio de otras actividades retributivas, públicas o privadas, en los términos establecidos en el artículo 74 LBRL.

HIRUGARRENA.- Arduraldi esklusiboa duten zinegotziei ORDIZIAHITZek gainerako enplegatu publikoei 39. artikuluan ezartzen dien babes erregimen aplikagarri izango zaie**.**

TERCERO. - *Reconocer a las y los concejales que tengan dedicación el régimen de protección previsto en el artículo 39 ORDIZIAHITZ.*

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, jakin dezaten eta ondorioak sortu ditzan, interesdunei, udaleko sail eta azpi-sail ezberdinei eta Udalaren menpeko erakundeei.

CUARTO. - *Notificar el presente acuerdo a las personas interesadas, a las diferentes áreas y subáreas municipales y a los entes dependientes municipales para su conocimiento y efectos.*

BOSGARRENA.- Akordio hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-oholean. Era berean, publizitate aktiboaren objektu izan beharko da.

QUINTO: *Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en el tablón de edictos. Del mismo modo, deberá ser objeto de publicidad activa.*

Eztabaida

<u>Debate</u>

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

<u>Alkateak</u> azaltzen du proposamenaren nondik norakoak, eta adierazten du hasiera batean behin-behineko egoeran

<u>El alcalde</u> explica los pormenores de la propuesta y señala que en un principio se tomó la decisión en situación provisional, pero que posteriormente se han detectado

hartu zela erabakia, baina ondoren gabeziak somatu direla, eta hori dela eta aurrez hartutako erabakia berrestea egokitu dela. Gehienbat bi alorretan ikusten diren gabeziei aurre egiteko, eta atakatik irteteko hartu da erabakia: Majoriko egoera zein den argi dago, eta pertsonal arloan ere dauden arazoak agerikoak dira. Beraz, horregatik ekarri dugu planteamentu hau. Berez ekainean ekarritako planteamentu bera da, baina lehen behin behineko izaerarekin ekarri zen, eta orain, aldiz, behin betiko izaerarekin ekartzen dugu.

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, adierazten du: gure baldintza izan zen une harretako egoeran zinegotzia jartzea, baino ondoren aldaketa eman da eta eskatu genuen udalbatza baino lehen horren berri ematea eta eman zaigu. Beraz eskertzen da. Baina, 2025 urterako aurrekontuetan 435.804, 77 euro aurreikusten dira (ordainsari, aportazio eta gobernu urbanoetan) eta dirutza bat da nahiz legeak ahalmentzen dizuen hori egitea.

carencias, por lo que procede ratificar la decisión adoptada anteriormente. La decisión se ha tomado para hacer frente a las carencias que se observan mayoritariamente en dos campos y para salir del atolladero: la situación en Majori está clara y los problemas que existen también en materia de personal son evidentes. Así que por eso hemos traído este planteamiento. Es el mismo planteamiento que se trajo en junio, pero antes se trajo con carácter provisional y ahora lo traemos con carácter definitivo.

Julen Iraola, concejal de Ordizia Orain Elkarrekin Podemos, señala: «Nuestra condición fue colocar al concejal en la situación especial de aquel momento, pero después se ha dado la modificación. Se solicito se nos informara antes del Pleno y así se ha hecho, por lo que se agradece. Sin embargo, en los presupuestos para 2025 se prevén 435.804, 77 euros (en retribuciones, aportaciones y gobierno urbano) y es una fortuna, aunque la ley os permite hacerlo.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 14 (EH BILDU ORDIZIA 7, EAJ/PNV 6, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 2 (ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS 2)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Arduraldi esklusibo edota partzialik ez duten zinegotziek bertaratzeak kobratzen dituzten kontzeptuengatik ezarritako diru-mugen aldaketa (2023AAAF0008)

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkateak, 2023 uztaileko Udal eraketan ezarri ziren zinegotziek bileretan parte hartzeagatikok ordainsariak. Aldaketa bakarra ekartzen dugu, eta mugen ingurukoa da. Erabaki zena zen zinegotzi bakoitzeko 375 eurotako muga bat ezartzea, baina talka sortzen da bi edo zinegotzi gutxiago dituzten talde politikoetan. Azken finean beraiek parte hartzen dute bilera denetan, hori eskatu zen egin ditugun hainbat bileretan, eta muga 375etik 600eurotara igotzea erabaki dugu, eta hori da aldaketaren arrazoia.

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, azaltzen du: herritarrei azaltze aldera, ordainketa kopuruak nola egiten diren 2023an erabakitakoa aintzat hartuta. Beraz, injustua da lan karga gehiagorekin gabiltzanok, edo denbora gutxiagorekin gaudenontzako, baina niri injustuagoa iruditzen zait gastatzen diren dirutzak politikarietan. Goi esferetan daudenak 1134 euro nahikoa dela iritzi baiote bizitzeko, soldata minimo interprofesionala, zergatik kobratu behar dute udaletxeko zinegotzi edo diputatuek soldata hori baino gehiago. Limitatu dezagun hemengo liberatu guztien soldatak 2 aldiz soldata minimora. Soldata majoa eta altua geratzen da. Gure aldetik ez da limitea igotzea, baizik eta herritarren

4.- Modificación de los límites de las asistencias que perciben las y los concejales que no tengan dedicación exclusiva o parcial percibirán. (2023AAAF0008)

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

